

2.- ZESAR

Kaio Julio Zesar Erroma'n aldakuntza aundi bat egin eban gizona da: Erakala edo errepublikea amaitu eta inperioa asi. Eta ori nai ebalako erail eban Bruto bere seme-ordeak senatuan bertan.

Gizon zurra zan, gudari sendoa, agintari trebea, idazle arrigarria, izlari ikasia eta jaurle ezin-obeia.

K.a. 100n. urtean jaio zan sendi leinargian, baiña erri zeearen edo plebeioen eskubideen alde jokatu eban beti, Kornelia bere emaztea be erri zeearen barrukoa zan.

Izlaritza ikastera Rodas ugartera joan zan gartzetan, orretan Marko Tulio Zizeron'eri bidea erakutsiz. Gero kuestor eta edil izendatu eban. Edil edo erri-zain zala joko ospetsu batzuk eratu ebazan, erriko iñori dirurik eskatu bagerik, Kraso aberatsak bai lagundu eutson.

“Galietako Guda” eta “Erritarren arteko guda” deritxen liburuak idatzi ebazan.

K.a. 60n. urtean etorri zan Ispania'tik eta Erroma'n iru agintari alkartu ziran, “triunvirato” izenagaz Erroma euren agindupean eukiteko.

Irukote au zapuztu zanean, K.a. 52n. urtean Ponpeio egin eban konsul eta onek Zesar alboratu egin eban, baiña Zesar'en asmoa zan Rubikon ibaia gudariakaz igarotea eta orrelan asi zan “Erritarren arteko guda”.

Ponpeio'ren gudarostea obea zan, baiña Grezia'ra baztertu ziran obeto guda egiteko, eta Zesar'ek iru illebetea zapuztu ebazan ponpeiotarrak Italia'n eta Ispanian eta laster agertu zan sasoia Farsalia'ko gudaldi aundia bien artean egiteko. Au be Ponpeio'k galdu eban

eta onek iges egin eban Ejipto' ra eta angoak erail eban. Orduan maitemindu zan Zesar Kleopatra'gaz eta Ejipto Erroma'ren ardurapean geratu zan.

K.a. 47n. urtean irabazi eban Ponto'ko erregearen aurka zan gudaldia eta antxe esan eban “veni, vidi, vici” esaldi ospetsua.

Zesar gizon aundi biurtu zan Erroma osoan: Dictator, Sumus Pontifex, Imperator...

Zergak aldatu ebazan, egutegia barriztatu eban eta “erritar” izena asko zabaldu eban.

Baiña beste agintariak eta Senatua aurka eukazan eta Bruto bere seme-ordeak Senatuan bertan erail eban., “tu quoque fili mi! berbak entzunda gero.

Zergaitik erail ete eban?

Bakar-agintaritzan nai ebalako, erriaren agintaritzaren aurka jokatzan ebalako, erkala edo errepublikea kendu nai ebalako. Bruto'k erriaren eskubideen alde jokatu eban, bere aita-ordearen aurka.

Egia esan, Zesar bera ez zan diktadorea, zaintzalle bagerik ibiltan zan gainera.

Bere eriotzeagaz amaitu eban bere lana, baiña Erroma'ko errepublikea zaurituta geratu zan. Bakarkoen agintaritzara, enperadoreak sortzeko, bideak zabalik geratzen ziran. Augusto bere lobeak lortuko eban elburu ori gizaldi batzutarako.

OLAZAR'tar Martin'ek

BURUA MENPERATU

Biziaren jaubeak
beren izate dana
menperatu eban,
Jaun ta Jabe izanik
gizonen eskuetan
ilteko jarri zan.

Zertzuk irakaskizun
agertu nai ebazan
lurraren aurrean,
egi ta maitasuna
ziran bere gidari
alkartasunean.

Irakatsi onena
emon eutsan lurrari
aldi on onetan,
argi jakituriaz
ta maitasun garragaz
ondurik bidetan.

JAUNAREN ERRI TA...

Jaunaren erri maite
aundia zara izatez
nortasun orretan,
zure jakituria
egiz, da zoragarri
lurraren ertzetan.

Lurraren biotzean
bizi dira gizonak
maitasun garretan,
ezer ederragorik
aurkitu ete leike
mundu egaletan...

Gizadi jakintsua
Jaunaren erri maite,
zer ederragorik...
goraldu Jaungoikoa
zuen jakituriaz,
gogoz, indarturik.

PAULIN